

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Afrikako musika-kontzertua Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko

*Aba Taano boskoteak zenbait gospel estilotako errezitaldia emango du igandean, abenduak 10, Baluarten*

Asteartea, 2017.eko abenduak 5

Nafarroako Gobernuak datorren igandean, abenduan 10, ospatuko den Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean ere parte hartuko du. Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez antolatutako jardueren eskaintzaren barruan, azaroaren 27an hasi zen, igandean Afrikako musika kontzertua izango da, Ugandako Aba Taano taldearen eskutik, Iruñeko Baluarte Batzar Jauregia eta Auditoriumean. Kontzertua 19:00etan hasiko da, eta joan nahi duenak Baluarteke leihatilan jaso beharko du gonbidapena.

Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuen 1948. urtean. Aurten, NBEk aldarrikapen horren 70. urteurrena finkatu du. Data horren ospakizuna dela eta, Nafarroako Gobernuak zenbait [jarduera](#) antolatu ditu. Jarduera horiek azaroaren amaieran hasi ziren, eta abenduaren 10eko astean zehar zenbait ekitaldi izango dira, mundura irekita dagoen begirada bat igortzeko eta Giza Eskubideen alde modu konstruktiboan lan egiteko.

### Aba Taano

Afrikako Aba Taano taldea Ugandako boskote bat da, hiru baxuk, baritono batek eta mezzo batek osatzen dutena. Ugandan Bizitzak salbatzeko musika GKE txikiak abian jarritako proiektu humanitario baten ondorioz sortu zen. Aba Taano taldeko kideak gaur egun Kireka



DÍA INTERNACIONAL DE LOS  
DERECHOS HUMANOS  
GIZA ESKUBIDEEN  
NAZIOARTEKO EGUNA

CONCIERTO GOSPEL 70  
AÑOS LIBRE  
GOSPEL KONTZERTUA

ABA TAANO

DICIEMBRE  
DOMINGO  
10  
ABENDUA  
IGANDEA

LUGAR: Baluarte  
HORA: 19:00h  
Entrada libre con invitación.  
Disponibles ya en taquilla.

TOKIA: Baluarte  
ORDUA: 19:00etan  
Sarrera libre gonbidapenarekin.  
Lehatilan jada eskuragai.

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

Aba Taanoren kontzertuaren berri ematen duen kartela.

umezurztegian (Kampalaren kanpoaldean) bizi diren neska-mutilen amabitxiak eta aitabitxiak dira. Ugandako taldeak gospel abesteko modua goitik behera aldatzen du. Bere erreperatorioaren artean gospel mota desberdinetako abestiak dituzte: afrikarra, Ugandakoa, Hego Afrikakoa, mezu espiritual sakon batekin, baina dinamismo handiarekin.

Boskoteko kideek, Nabbaale Harrietek (mezzo), Nkugwa Mukisa Patrickek (baritonoa), Kamoga Morrisek (baxua), Mayanja Louisek (baxua) eta Ssenteza Derrickek (baxua eta zuzendaria) nazioarteko sei sari lortu dituzte dagoeneko, eta 700 kontzertu baino gehiago egin dituzte banakako talde gisa. Publiko guztien artean oso ezaguna da dagoeneko, eta Bizitzak salbatzeko musika gobernuz kanpoko erakundearen finantza-mailako laguntzarik handiena da.